


Euskal Autonomia Erkidegoko industria-jarduerak % 0,6ko igoera izan du 2019ko urrian

Industria Produkzioaren Indizeak % 0,8ko igoera izan du 2019ko lehen hamar hilabeteetan

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-produkzioak % 0,6ko igoera izan du 2019ko urrian, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, lan-egutegiko termino homogeneoetan. Hortaz, 2019ko lehen hamar hilabeteetako balantzea % 0,8ko igoera metatuarekin itxi da, 2018ko aldi berarekin alderatuta.

Era berean, aurreko hilabetearekin (hots, 2019ko irailarekin) alderatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-produkzioak % 0,2ko beherakada izan du, urtaroen ondorioak zuzendu ondoren.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2019ko urriko indizeak 2018ko urrikoaren aldean izan duen bilakaerak emaitza positiboak izan ditu industria-sektore handietan (xede ekonomikoaren arabera), *bitarteko ondasunetan* izan ezik, haien indizeak % 3,1eko beherakada izan baitu. Bestalde, *energiaren* indizeak % 14,2ko igoera izan du, eta *ekipamendu-ondasunen* eta *kontsumo-ondasunen* indizeek, berriz, % 0,9koa. Azken horien barruan, *kontsumo ez-iraunkorreko ondasunek* % 2,4ko igoera izan dute, eta *kontsumo iraunkorreko ondasunek*, berriz, % 4,8ko jaitsiera.

2019ko urriaren eta 2019ko irailaren arteko hiletik hilerako aldakuntzak joera bera izan du sektore horietan, baina negatiboa izan da kasu guztietan, % 2,6ko igoera izan duen *Energiaren* kasuan izan ezik. Izan ere, *bitarteko ondasunek* % 1,0eko jaitsiera izan dute, *ekipamendu-ondasunek* % 0,3koa, eta *kontsumo-ondasunek*, oro har, % 0,6koa (*kontsumo iraunkorreko ondasunek* % 3,1eko jaitsiera izan dute, eta *kontsumo ez-iraunkorreko ondasunek* ez dute aldakuntzarik izan).

Euskal industrian indarrik handiena duten sektoreen artean, 2019ko urrian igoerarik handienak izan dituztenak (urtetik urterako aldakuntzak kontuan hartuta) honako hauek dira: *Energia elektrikoa, gasa eta lurrina* (% 23,9), *Zura, papera eta arte grafikoak* (% 2,8), *Material eta ekipamendu elektrikoa* (% 2,1) eta *Garraio-materiala* (% 1,7).

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-2,6
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	23,9
09 - Kautxua eta plastikoak	0,0
13 - Makineria eta tresneria	-2,1
14 - Garraio-materiala	1,7
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	0,8
12 - Material eta tresneria elektrikoa	2,1
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	2,8

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Jaitsierak, berriz, honako sektore hauetan gertatu dira: *Metalurgia eta produktu metalikoak* (urtetik urterako % 2,6ko jaitsiera) eta *Makineria eta ekipamendua* (% 2,1eko jaitsiera).

Lurralde historikoak kontuan hartuta, Industria Produkzioaren Indizearen urriko urtetik urterako bilakaera positiboa izan da Bizkaian, % 3,4ko igoerarekin; Araban eta Gipuzkoan, berriz, % 0,3ko eta % 1,8ko jaitsierak izan dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2019ko Urria

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Urr2019 / Urr2018	A(Urr2019) / A(Urr2018)(*)	Urr2019 / Ira2019	Ira2019 / Abu2019
Indize orokorra				
Euskal AE	0,6	0,8	-0,2	-0,3
Araba/Álava	-0,3	-3,5	0,5	4,1
Bizkaia	3,4	4,2	-1,1	-3,6
Gipuzkoa	-1,8	0,0	0,5	0,8
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	0,9	2,7	-0,6	-0,6
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-4,8	2,5	-3,1	-6,2
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	2,4	2,7	0,0	0,8
Ekipo-ondasunak	0,9	-0,4	-0,3	10,0
Bitarteko ondasunak	-3,1	-0,5	-1,0	-0,1
Energia	14,2	6,6	2,6	-6,3

(*) 2019ko urtarrietik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2018eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62